

**PARQUE CIENTÍFICO Y TECNOLÓGICO DE GIPUZKOA –
GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA, S.A.
GOBERNU KORPORATIBOAREN 2023KO EKITALDIKO
TXOSTENA**

**PARQUE CIENTÍFICO Y TECNOLÓGICO DE
GIPUZKOA – GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA
TEKNOLOGIA PARKEA, S.A.**

**GOBERNU KORPORATIBOAREN 2023KO
EKITALDIKO TXOSTENA**

1. JABETZAREN EGITURA

1.1.- Sozietatearen kapitala

2023ko abenduaren 31n, hau zen sozietatearen kapitala:

Kapital soziala (€)	Akzio-kopurua	Boto-eskubideen kopurua
92.385.500	923.855	925.855

Akzioak izendunak dira —bakoitza ehun eurokoa eta guztiak mota berekoak—, eta guztiak daude harpidetuta eta ordainduta.

1.2.- Ekitaldiaren itxieran, hauek ziren partaidetzen titular zuzenak:

Akziodunaren izena edo izen soziala	Boto-eskubide zuzenen kopurua	Boto-eskubide guztien araberrako %
SPRI - Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	626.117	%67,77
Gipuzkoako Foru Aldundia	190.818	%20,65
Kutxabank, S.A.	61.416	%6,65
Donostiako Udala	45.504	%4,93

1.3.- 2023 Ekitaldian akzio-egituran izandako mugimenduak hurrengoak dira.

Akziodunaren izena edo izen soziala	Eragiketaren data	Eragiketaren deskribapena	Handitzeen aurreko partaidetzaren %	Parte-hartzearen %, handitzearen ondoren
SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	2023.06.15	Kapital-gehikuntzan parte hartzea: 4.213.500 €.	%67,11	%67,77
	2023.12.29	Kapital-gehikuntzan parte hartzea: 1.200.000 €		
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa	2023.06.15	Kapital-gehikuntzan parte hartzea: 1.284.100 €	%20,45	%20,65
	2023.12.29	Kapital-gehikuntzan parte hartzea: 365.700 €		
Donostiako Udala Ayuntamiento de San Sebastián	2023.12.29	Kapital-gehikuntzan parte hartzea: 87.200 €	%5,24	%4,93

- 1.4.- Administrazio Kontseiluetako kideek ez dute sozietatearen akziorik.
- 1.5.- Sozietateari ez zaizkio jakinarazi partaidetza adierazgarrien titularren artean dauden merkataritza, kontratu edo sozietate arloko izaera duten harremanak.
- 1.6.- Sozietateari ez zaio jakinarazi harengan eragina izan dezakeen hitzarmen parasozialik ez eta akziodunen artean hitzartutako ekintzarik.
- 1.7.- Sozietateak ez du akziorik autozorroan.
- 1.8.- Estatutuetan ez dago mugarik boto-eskubideak gauzatzeari dagokionez.
- 1.9.- Estatutu Sozialen 2. artikuluan ondoko murrizketa hauek ezartzen dira kapital sozialaren partaidetzen eskualdatzeri dagokienez:

“Sozietatearen akzioak besterendu nahi dituen erakundeak edo bazkideak idatziz jakinarazi beharko dio Administrazio Kontseiluari, eta hark, hilabeteko epean, gainerako akziodunei jakinaraziko die. Horiek bi hilabeteko epea izango dute erosteko aukera baliatu eta gauzatzeko, eta, akzioak batek baino gehiagok erosi nahiko balitu, haien artean banatuko dira, bakoitzak dituen partaidetzak hainbanatuta.

Bazkide den erakunde edo pertsona bakar batek ere ez badu salgai dauden akzioekiko interesik, Sozietateak eskuratu ahal izango ditu, hogeita hamar eguneko epean, legeak ezarritako mugen eta ondorioen arabera.

Azken hori igarotakoan, bazkidea den erakundea edo pertsona libre geratuko da bere akzioak egoki irizten dion moduan eskualdatzeko, eta hori hilabete biko epean egin beharko du.

Aurretiaz ezarritako lehentasunez erosteko eskubidea egikaritzeko, salmentaprezioak gutxienez eskualdatu beharreko akzioen balio errealari dagokiona izan beharko du eta, desadostasunik izanez gero, peritatze bidez finkatuko da. Peritatze horren titulartasuna alderdiek adostasunez izendatuko baitute, eta, halakorik ezean, epaitegi eskudunak izendatuko du.

Baliorik gabeak izango dira sozietateaz kanpoko pertsona bati eskualdatzen zaizkion akzioak, baldin eta ez badator estatutuetan ezarritakoarekin bat.

2. SOZIETATEAREN ADMINISTRAZIO EGITURA

- 2.1.- Estatutuetan, kontseilari-kopuru hau aurreikusten da, gutxienez eta gehienez:

Gehienezko kontseilari-kopurua	12
Gutxienezko kontseilari-kopurua	6

Gaur egun, 9 kontseilari daude, 5 emakume eta 4 gizon.

2.2.- 2022ko abenduaren 31n, hauek ziren Administrazio Kontseiluko kideak:

Kontseilariaren izena edo izen soziala	Pertsona fisikoa den ordezkaria	Kontseiluan duen kargua	Lehenengo izendapen-data	Azken izendapen-data	Hautatzeko prozedura
Estibaliz Hernaez Laviña		Presidentea	2013.02.22	2023.06.16	SPRIk izendatuta
Aitor Urzelai Inza		Batzordekidea	2014.06.13	2019.06.14	
Aitor Cobanera Rodríguez		Batzordekidea	2014.03.21	2019.06.14	
Leyre Madariaga Gangoti		Batzordekidea	2020.11.13		
Mikel Amundarain Leibar		Batzordekidea	2021.10.08		
Jaione Lamy Insausti anderea		Batzordekidea	2015.10.23	2020.06.19	Kutxabank, S.A.k izendatuta
Ane Insausti Altuna		Batzordekidea	2023.10.06		Gipuzkoako Foru Aldundiak izendatuta
Jose Ignacio Asensio Bazterra		Batzordekidea	2023.10.06		
Cristina Lagé Manich		Batzordekidea	2020.03.27		Donostiako Udalak izendatuta

2.3.- 2023ko abenduaren 31rarte, Administrazio Kontseiluko osaeran ondorengo aladaketak eman dira:

Izena	Kontseilariaren izaera kargua uzten duenean	Bajan emandako data
D. Harkaitz Millán Etxezarreta	Bokala	2023.03.17
D ^a . Maria José Telleria	Bokala	2023.10.06
D. Jabier Larrañaga Garmendia	Bokala	2023.10.06

2.4.- Hauek dira izaera exekutiboko kontseilariak:

Kontseilariaren izena	Betetzen duen kargua
Estibaliz Hernaez Laviña anderea	Presidentea
Aitor Urzelai Inza jauna	Batzordekidea

Kontseilari exekutiboaren kopurua guztira	2
Kontseiluaren % guztira	22%

2.5.- Hauek dira Kontseilari dominikalak:

Kontseilariaren izena	Ordezkatzen duen edo bere izendapena proposatu duen akziodunaren izena
Estibaliz Hernaez Laviña	SPRI
Aitor Cobanera Rodríguez	SPRI
Aitor Urzelai Inza	SPRI
Leyre Madariaga Gangoiti	SPRI
Mikel Amundarain Leibar	SPRI
Jaione Lamy Insausti	Kutxabank, S.A.
Ane Insausti Altuna	Gipuzkoako Foru Aldundia
Jose Ignacio Asensio Bazterra	Gipuzkoako Foru Aldundia
Cristina Lagé Manich	Donostiako Udala

Kontseilari dominikalen kopurua guztira	9
Kontseiluaren % guztira	100%

Urtean zehar ez da aldaketarik izan kontseilarien tipologian.

2.6.- Badago berriazko dokumentu bat kontseilari berriak trebatzeko eta bideratzeko. Alderdi hauek jasotzen dira dokumentuan:

- a.-** Abenduaren 28ko 335/1993 Dekretua, non Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A.ri “Parque Tecnológico de San Sebastián-Donostiako Teknologi Elkarte, S.A.” sozietate Publikoa sortzeko baimena ematen zaio.
- b.-** Administrazio Kontseiluaren osaketa.
- c.-** Sozietateko Estatutuak.
- d.-** Kontseiluaren Estatutua.
- e.-** Gobernu korporatiboko txostena
- f.-** Organigrama
- f.-** Aurkezpena
- g.-** Kudeaketa Txostena. 2023ko abenduaren 31an bukatutako ekitaldia.
- h.-** Administrazio Kontseiluetako aktak – 2023. urtea.

i.- Batzar Nagusien aktak – 2023. urtea

Kontseilari berri guztiek jasotzen dute dokumentu hau eta jaso izanaren ziurtagiria sinatzen dute. Gainera, konpromisoa hartzen dute Kontseiluaren araudia betetzeko eta aplikatzen dela zaintzeko.

2.7.- Administrazio Kontseiluak ez du izendatu kontseilari delegaturik.

2.8.- Administrazio Kontseiluan ez da batzorderik osatu.

2.9.- Hauek dira 2023ko abenduaren 31n SPRI taldeko beste sozietate batzuetan administratzaile- edo zuzendaritza-karguak dituzten Kontseiluko kideak:

Nombre o denominación social del consejero	Denominación social de la entidad del grupo SPRI	Cargo
Estibaliz Hernaez Laviña	SPRI - Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	Administratzailea
	Sprilur, S.A.	Administratzailea
	Teknologi Elkartegia, S.A.	Presidentea
	Arabako Teknologia Elkartegia, S.A.	Presidentea
	Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A.	Presidenteordea
Aitor Cobanera Rodríguez	Teknologi Elkartegia, S.A.	Administratzailea
	Arabako Teknologia Elkartegia, S.A.	Administratzailea
	BIC Bizkaia Ezkerraldea	Administratzailea
	BIC Gipuzkoa Berrilan, S.A.	Administratzailea
	Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, S.A.	Administratzailea
Aitor Urzelai Inza	Sprilur, S.A.	Presidentea
	Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A.	Administratzailea
	Arabako Teknologia Elkartegia, S.A.	Administratzailea
	Teknologi Elkartegia, S.A.	Administratzailea
	Agencia Vasca de Internacionalización - Basque Trade and Investment, S.A.	Presidenteordea
Leyre Madariaga Gangoiti	Teknologi Elkartegia, S.A.	Administratzailea
	Arabako Teknologia Elkartegia, S.A.	Administratzailea
	Arabako Eraberrikuntza-Industrialdea, S.A.	Presidentea
	BIC Gipuzkoa Berrilan, S.A.	Presidentea
	BIC Bizkaia Ezkerraldea	Presidenteordea
Mikel Amundarain Leibar	Teknologi Elkartegia, S.A..	Administratzailea
	Arabako Teknologia Elkartegia, S.A.	Administratzailea

	SPRI - Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia	Presidenteordea
	Sprilur, S.A.	Administratzailea
	Agencia Vasca de Internacionalización - Basque Trade and Investment, S.A.	Presidentea
	Euskal Herriko Arrisku-Kapitalaren Kudeaketa AKEKS, S.A.	Administratzailea

2.10.- Sozietateak ez du araurik ezarri bere kontseilariak partaide izan daitezkeen Administrazio Kontseiluen kopuruari buruz.

2.11.- Besteak beste, Administrazio Kontseiluak erantzukizun hauek hartzen ditu enpresaren jardueraren gainean:

- Inbertsio-politika eta finantziazioa.
- Administrazio Kontseiluaren Estatutua.
- Urteko kudeaketa-plana, eta eta hura gauzatzeko ebaluazio partzialak.
- Goi zuzendaritza-karguen jardueraren pizgarriak eta ebaluazioa.
- Enpresen onarpena.
- Sozietatearen eta haren talde finkatuaren urteko kontuak formulatzea.

2.12.- Sozietateak Kontseiluaren Estatutua du, Administrazio Kontseiluko kide guztiek berretsi eta sinatu dutena. Ondokoekin loturiko gaiak jasotzen ditu:

- Kontseiluaren eraketa.
- Kontseiluaren egitura.
- Kontseiluko batzordeak.
- Kontseiluko funtzioak.
- Kontseiluaren funtzionamendua.
- Kontseilarien izendapena eta kargu-uztea.
- Kontseilarien eginbeharrak (kode deontologikoa)/interes-gatazka.
- Kontseilariaren eskubideak eta ahalmenak.
- Gobernu korporatiboa.

2.13.- 2023an Kontseiluaren Araudian ez da aldaketarik egin.

2.14.- Administrazio Kontseiluak ez du Azaroak 15eko 156/2016 Dekretuan zehaztutakoaren arabera zuzendari-kargurik izendatu.

2.15.- Ez dago berme- edo blindatze-klausularik Sozietatearen goi-zuzendaritzako kideen mesedetan, kontseilari exekutiboak barne.

2.16.- Kontseilariak behartuta daude dimititzera kasu hauetan (Kontseiluaren Araudiaren 22. art.):

- *Izendatuak izan ziren epealdia igarotzen denean edo Batzar Nagusiak, legez eta estatutu bidez dituen eskumenak erabiliz, hala erabakitzen duenean.*
- *Legez aurrez ikusitako bateraezintasun- edo debeku-kasu bat betetzen denean.*
- *Kontseilari gisa dituzten betebeharrak hausten dituztenean.*
- *Kontseiluan jarraitzeak Sozietatearen interesak arriskuan jar ditzakeenean.*

2.17.- Honako neurri hau hartu da pertsona bakar batean ahalordeak metatzearen arriskuak mugatzeko: mankomunatutako ahalordeak ematea Itziar Epalza Urquiaga andrearen, Aitor Urzelai Inza jaunaren eta Estibaliz Hernáez Laviña anderearen artean 300.000 eurotik aurrera, batez ere ondasun higigarri nahiz higiezinak erosteko, saltzeko, trukatzeko, kontratuak emateko, formalizatzeko, esleitzeko, luzatzeko, aldatzeko, berritzeko, eteteko eta bertan behera uzteko eta mailegu- edo kreditu-eragiketak harpidetzeko eta formalizatzeko, edonolako fidantza, abal, bahi, hipotekak eratzea, onartzea eta baliogabetzea eskatzeko eta abar.

2.18.- Edozein motatako erabakiak hartzeko ez da legeak ezarritakoaz beste gehiengo sendorik eskatzen eta akordioak erdia gehi bat quorumaren arabera hartuko dira.

2.19.- Kontseiluko presidenteari Estatutu Sozialetan eta Kontseiluaren Araudian ezarri zaizkion funtzioak, organo horren funtzionamenduari dagokionez, honako hauek dira:

- a. Kontseiluaren bileretarako deialdia egitea eta horien buru izatea, ebazteko eta eteteko ahalmenarekin. Deliberazioak zuzenduko ditu, hitza nork duen erabakiko du eta mintzaldien iraupena zehaztuko du
- b. Kontseiluaren bileren gai-zerrenda finkatzea.
- c. Kontseiluko kide guztiak bileretara bertara daitezen saiatzea; horretarako, Araudi honetan xedatzen den moduan eta epeetan bidaliko dira deialdiak.
- d. Kontseilariaren bat Kontseilura bertaritzen ez denean horren zioak egiaztatzea, ez bertaratzeari errepikatzen denean.
- e. Kontseiluaren eta Batzarraren akordioak egikaritzea eta betearaztea.
- f. Kontseiluaren funtzionamenduaren ebaluazioa gainbegiratzea, ebaluaziotik eratortzen diren hobetze-proposamenak martxan jartzea,

2.20.- Presidenteak kalitateko botoa du.

2.21.- Kontseiluaren Estatutuek edo Araudiak ez dute kontseilarien adinari buruzko mugarik jartzen.

2.22.- Ez dago prozesu formalik botoak Administrazio Kontseiluari eskuordetzeko, nahiz eta aktak idatziz egindako boto-eskuordetzeak soilik jaso.

2.23.- Administrazio Kontseiluak lau bilera izan ditu 2024an eta hirutara joan da presidentea.

2.24.- Formulatuak izan daitezten, Kontseiluari aurkezten zaizkion urteko kontuak alde zuzenetik egin dira, Amaia Bernarás Iturrioz anderea gerentearen gainbegiratzepan.

2.25.- Administrazio Kontseiluak ez du mekanismorik ezarri berak formulatutako urteko kontuak Batzar Nagusian aurkeztea galarazteko, ikuskaritza-txosteneko salbuespenak kontuan izanda.

2.26.- Kontseiluko idazkariak kontseilari izaerak ez du.

2.27.- Kontseiluaren osoko bilkurak onartzen du Kontseiluko idazkariaren izendapena eta kargu-uztea.

2.28. Kontseiluko idazkariak bermatu behar du funtzionamendu arauak behar bezala aplikatzen direla eta aktak jasotzeko zein sinatzeko prozedurak behar bezala garatzen direla. Akta liburuak, akziodunen liburuak eta akordioen tramitazioak ere zaindu behar ditu, instrukzio bat ezarri baita Sozietatearen kalitate sistemaren barruan, eta sistema horrekin kontrolatzen eta gainbegiratzen baitu idazkariak jarduera horiei buruzko arauak eta prozedurak aplikatzen dituela.

2.29.- Kontu-ikuskaritzaren independentzia bermatzeko, lehiaketa publikoaren mekanismoa erabiltzen du Sozietateak; hartara, publizitatea, objektibotasuna eta konkurrentzia bermatzen baitira.

2.30.- Sozietatearen urteko kontuak ikuskatzeaz arduratzen den enpresak, PKF ATTEST SERVICIOS EMPRESARIALES, S.L., ez du beste lanik egin sozietatearentzat, auditoriakoak ez badira.

2.31.- 2023ko ekitaldiko urteko kontuen ikuskaritza-txostenean ez da erreserba edo salbuespenik ageri.

2.32.- Egungo ikuskaritza-enpresak bostgarren aldiz egin du Sozietatearen urteko kontuen ikuskaritza. Hala, gaur egungo enpresak ikuskatutako urteak %16,67 dira urteko kontuak ikuskatu diren urte guztiekiko.

2.33.- Dagozkien funtzioak egiteko laguntza jasotze aldera, kontseilariak lege- aholkulariak, kontulariak, finantza-aholkulariak edo bestelako adituak kontrata ditzakete edo bileretara joan daitezten eska dezakete. Halako laguntzaile bat eskatzeko, beharrezkoa da argitu nahi diren arazoek gutxienezko munta eta konplexutasun maila izatea, eta karguaren jardunean agertutakoak izatea.

Kontratatzeko erabakia Kontseiluko presidenteari jakinarazi beharko zaio, eta betoa jar dakioko baldin eta ondokoa frogatzen bada:

- a. Ez dela beharrezkoa agindutako funtzioak egoki egiteko
- b. Kostua ez dela arrazoizkoa arazoaren garrantzia ikusita
- c. Sozietateko aditu eta teknikariek egoki eman dezaketela eskatutako laguntza teknikoa.

2.34.- Kontseilariak administrazio-organoen bilerak nahikoa denborarekin prestatzeko behar den informazioa izan dezaten, gutxienez hamar egun naturaleko aurrerapenarekin bidaliko da deialdia, baldin eta gutun bidez egiten bada, eta zazpi eguneko aurrerapenarekin, baldin eta posta elektronikoko bidez egiten bada, kontseilariak kasu bakoitzean adierazitako helbidera. Deialdi horretan, bileraren gai-zerrenda eta dagokion informazioa emango dira beti. Bilerak, oro har, sozietatearen egoitzan egingo dira, baina lehendakariak zehaztutako beste leku batean ere egin ahal izango dira, edo, bestela, bitarteko telematikoen bidez, sailburuak aldi berean bertaratu ahal izango dira leku desberdinetan, ikus-entzunezko edo telefono bidez konektatuta, betiere bertaratutako kideen onarpena eta denbora errealeko interaktibitatea eta interkomunikazioa bermatzen badira, eta, beraz, egintza-batasuna bermatzen bada.

2.35.- Administrazio Kontseiluko kideei etengabe informazioa emateko sistema garatu du enpresak. Hala, Administrazio Kontseiluaren bileren gai-zerrendaren barruan informazio ekonomikoa, finantzarioa eta jarduerari buruzkoa jasotzen da, eta horrez gain, zuzenean egoeraren berri izateko informazio garrantzitsua ematen da.

2.36.- Administrazio Kontseiluaren Araudiari gehitu zaio kontseilarietzako Kode Deontologikoa, kide guztiek bete beharreko irizpide etikoak eta jokaera-irizpideak jasotzen dituenak. Kode horretan hainbat irizpide ezartzen dira, besteak beste, etikoki onargarriak diren erabakiak hartzeko, kontseilarien artean izan daitezkeen interes-gatazketarako, gatazka horiek konpontzeko, etab. Era berean, ondoko kapituluetan egituratuta dago kodea:

- Jokabide-irizpideak.
- Kontseilarien betebeharrak orokorrak.
- Isilpekotasun-betebeharra.
- Gardentasunaren eta informazioaren betebeharra.
- Interes-gatazka.
- Sozietatearen izena erabiltzea.
- Informazio ez-publikoa.
- Lotutako pertsona.

2.37.- Administrazio Kontseiluko kide batek ere ez dio jakinarazi Sozietateari prozesatu dutenik edo haren aurka ahozko epaiketa irekitzeko autoa eman denik, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 213. artikuluan adierazitako delituak direla-eta.

2.38.- Urtero inkesta baten bidez ebaluatzen da Administrazio Kontseilua eta galderak arlo hauei buruzkoak dira, besteak beste: bileren datak, deialdiak, gai-zerrendako gaiei buruzko informazioa, informazio-eskaerei emandako arreta, etab.

Jasotako puntuazioa 5etik 4,94koa da, eta ondorioz ez da hobekuntza-ekintzarik planteatu.

3. LOTUTAKO ERAGIKETAK

Lotutako entitateekin mantendutako saldoak 2023ko abenduaren 31n honako hauek dira:

	(Euro)			
	Epe laburrerako hornitzaileak, taldeko enpresak eta horiekin elkartutako enpresak	Taldeko enpresak eta horiekin elkartutako enpresetan inbertsioak	Epe luzerako zorrak taldeko enprekin eta elkartuekin	Epe motzerako zorrak taldeko enprekin eta elkartuekin
Eusko Jaurlaritza <i>Gobierno Vasco</i>	-	18.001.949	-	-
SPRI Enpresa-garapenerako euskal agentzia <i>Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial</i>	15.518	-	-	-
Finantzen Euskal Institutua <i>Instituto Vasco de Finanzas</i>	-	-	1.218.332	314.022
Guztira	15.518	18.001.949	1.218.332	314.022

2014ko ekitaldian, Sozietateak Finantzen Euskal Institutua - Instituto Vasco de Finanzas entitatearen (Eusko Jaurlaritzaren menpeko entitatearen) eskutik jaso zuen 2.645.500 euroko mailegu bat aldi bakoitzean onartutako gastu aukeragarriak finantzatzeko, eta ondorioz, Euskadiko Autonomia Erkidegoan zientzia- eta teknologia-inbertsioak egin ahal izateko proiektuak garatzeko. Maileguari iraunaldi osorako ezarri zaion interes-tasa % 1,232koa da. Mailegua amortizatzeke epea 10 urtekoa da, etengabeko kuotak ordaintzearen bidez. Kapitala eta interesa amortizatzeke gabealdia 2018ko urtarrilaren 2an amaitu da, eta lehenengo kuota, 296.245,33 eurotakoa, 2019ko urtarrilak 2an ordaindu zen.

2015eko ekitaldian, Sozietateak Finantzen Euskal Institutua - Instituto Vasco de Finanzas entitatearen beste mailegu gehigarri bat jaso zuen, 161.000 eurotakoa.

Bestalde, erantsitako balantzearen aktibo korrientearen "Taldekoko enpresetan eta elkartuetan epe laburreko inbertsioak" epigrafean, sozietateak 2021ean Eusko Jaurlaritzak eta banku-erakunde batek sinatutako funtsen zentralizazio-kontratuari atxikitzearen ondorioz ekitaldia ixtean izandako saldo zorduna jasotzen da. Kontratu horren bidez, sozietatea Eusko Jaurlaritzaren Diruzaintza Korporatiboaren kudeaketa-ereduan eta haren Cash Pooling ereduan sartzen da.

Sozietateak 2023ko ekitaldian erregistratu du Finantzen Euskal Institutua - Instituto Vasco de Finanzas entitateak emandako maileguari dagokion finantza-gastua 18.649 euroko zenbatekoarekin.

Lotetsitako entitateekin 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan egindako transakzioak honako hauek dira:

	Euro		
	Jasotako zerbitzuak	Finantza-gastuak	Errentamenduen eta zerbitzuak ematearen ondoriozko diru-sarrerak
Arabako Teknologi Elkartegia, S.A. <i>Parque Tecnológico de Álava, S.A.</i>	15.457	-	-
Teknologi Elkartegia, S.A. <i>Parque Tecnológico, S.A.</i>	159.684	-	-
SPRI Enpresa-garapenerako Euskal Agentzia <i>Agencia Vasca de Desarrollo Empresarial</i>	18.548	-	-
BIC – Gipuzkoa Berrilan, S.A.	-	-	40.139
Finantzen Euskal Institutoa <i>Instituto Vasco de Finanzas</i>	-	18.649	-
Total	193.689	18.649	40.139

Lotutako alderdiekin egindako transakzioak Sozietatearen trafiko normaleko eragiketekin lotzen dira, eta merkatuko prezioetan egiten dira, zeinak lotu gabeko entitateei ezartzen zaienen antzekoak baitira.

3.1.- Administrazio Kontseiluko kideek ez dute esan interes-gatazkaren batean nahastuta egon direnik, Kapital Sozietateen Legeko 227, 228, 229 eta 231. artikuluetan eta Administrazio Kontseiluaren Araudian ezartzen den moduan:

Kontseilariak kontu izango du ez dadin gatazka-interesik sor bere edo berarekin erlazionatutako pertsonen eta Sozietatearen artean. Aldiz, gatazka-interesa eragozterik ez badu, haren berri emango dio Sozietateari. Bereziki:

- *Kontseilariak ez du parte hartu behar zuzenean edo zeharka eragiten dioten gaiei buruzko erabakietan*
- *Kontseilariak ez du egin behar —ez zuzenean ez zeharka— zerbitzu profesionalen edo izaera komertzialeko zerbitzuen transakziorik Sozietatearekin, aurrez interes-gatazkari buruz informatzen duenean eta kontseiluak transakzioa onartzen duenean salbu.*
- *Kontseilariak ezin du aprobetxatu, bere edo harekin lotura duten pertsonen onurarako, Sozietatearen negozio-aukerarik. Halakotzat jotzen da Sozietatean sortutako edo Kontseilariak, bere kargua dela-eta edo Sozietatearen informazio-bideak erabiliz aurkitutako edozein inbertsio edo eragiketa komertzial egiteko aukera.*

Kontseilariak, edozein gehiegikeria edo ez-betetzere berri dutenean —eta, bereziki, informazio garrantzitsu edo pribilegiatuaren erabilerarekin lotua badago— lehendakariari jakinarazi behar diote, Sozietatearekiko duten leialtasunagatik.

4. ARRISKUEN KONTROLA

Sozietatearen jarduerak hainbat finantza-arrisku dituzte: merkatu-arriskua (kanbio-tasaren arriskua, arazoizko balioaren interes-arriskua eta prezioen arriskua barne), kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta interes-tasaren arriskua diru-fluxuetan. Sozietatearen arrisku globala kudeatzeko programa finantzamerkatuen ziurgabetasunean oinarritzen da, eta sozietatearen finantza-errentagarritasunean izan daitezkeen ondorio kaltegarriak minimizatzen saiatzen

da.

Sozietatearen finantza-arriskuen kudeaketa finantza zuzendaritzaren esku dago, zeinak behar diren mekanismoak ezarrita baititu interes-tasen eta kanbiotasaren aldaketak izateko eta kreditu-eta likidezia arriskuak pairatzeko aukerak kontrolpean izateko. Ondoren azalduko ditugu Sozietateari eragiten dioten finantza-arrisku nagusiak:

Merkatu arriskua-

Finantza-tresna baten etorkizuneko arrazoizko balioa edo diru-fluxuak aldatu ahal izateko arriskua da, interes-tasetan (interes-tasaren arriskua), kanbio-tasan edo prezioaren eta eskaintzaren beste arrisku batzuetan izandako aldaketen ondorioz.

Prezio arriskua-

Sozietateak ez du kotizatutako lehengaiaren prezioaren arriskurik. Era berean, ez du kotizazioa duen inbertsiorik.

Interes-tasaren arriskua arrazoizko balioan-

Sozietateak arrazoizko balioko interes-tasaren arriskuarekiko duen esposizioa ez da esanguratsua, ez baitu aktibo eta pasibo finantzario garrantzitsurik interes-tasa finkoan.

Kanbio-tasaren arriskua-

Ez dago kanbio-tasaren arrisku esanguratsurik eragiketa ia guztiak eurotan egiten direlako.

Likidezia arriskua-

Sozietateak finantza-tresna batean behar bezain azkar eta kostu gehigarri esanguratsurik izan gabe desinbertitzeko zailtasunak aurkitzeko arriskuaz ari da, edo ordainketa-betebeharrei aurre egin behar zaien unean likideziarik ez edukitzeaz lotutako arriskuaz.

Sozietateak likidezia-arriskuaren kudeaketa zuhurra egiten du, nahikoa eskudiru mantentzean oinarrituta. Maniobra funts positiboa du eta zorpetzeko ahalmen gehigarria.

Finantza Zuzendaritzak Sozietatearen likidezia erreseberaren aurreikuspenen jarraipena egiten du, eskudiruaren erabilgarritasuna eta eskudiruaren baliokideak barne, espero diren dirufluxuen arabera.

Likidezia ziurtatzeko eta bere jardueratik eratorzen diren ordainketa-konpromiso guztiei erantzun ahal izateko, sozietateak diruzaintza, cash pooling-a, finantzaketa-lineak eta balantzea erakusten duen maniobra-funtsa ditu. Sozietateak bere jarduera garatzeko behar dituen finantza-baliabideak lortzeko gaitasuna Euskadiko Autonomia Erkidegoaren urteko aurrekontuetan finkatzen da. Finantza-baliabide horiekin lotutako baldintzak, bai pasiboak zein aktiboak ere, Euskadiko Administrazio publikoaren eta administrazio horretan jarduten duten finantza-entitateen artean, eta orokorrean, urtero sinatuko den hitzarmenaren bidez arautuko da. Hitzarmen honek zehazten ditu Euriborraren inguruan ezartzen diren eta kasu bakoitzean aplikatu daitezkeen interes-tasak, komisioak, etab.

Kreditu arriskua-

Sozietatearen finantza-aktibo nagusiak taldeko enpresei emandako kredituak, eskudiru-saldoak, merkataritza zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk dira, sozietateak kreditu-arriskuarekiko duen gehieneko esposizioa adierazten dutenak.

Sozietateak, aldez aurretik, lokalak alokatzeko edo partzelak saltzeko eskaeren banakako azterketa egiten du. Bestalde, prezioaren ordainketa partzialaren kasuan, higiezinak jabari-erreserbaren itunarekin formalizatuta daude, hitzartutako zenbateko guztiak likidatu arte, jabetza-eskualdaketa formalizatzen den unean. Hori dela eta, ez da arrisku esanguratsurik egiaztatu arrazoi horrengatik.

Zenbatekoak narriaduragatiko balio-zuzenketen balantze garbian isladatzen dira, sozietatearen zuzendaritzak zenbatetsitakoak aurreko ekitaldietako esperientziaren eta zordun bakoitzaren inguruabar zehatzen arabera.

2023ko abenduaren 31n, Sozietateak 188.791 euroko kobratzeko dituen kontu komertzialen balionarriaduragatiko galerengatiko zuzenketa bat du eratuta, eta hori da sozietateak berandutza-egoeran dauden edo egun horretan narriatuta dauden aktiboekiko duen esposizioa.

Bestalde, diru-saldoak egokitzat jotzen den kaudimen maila duten finantza-erakundeetan mantentzen dira.

5. BATZAR NAGUSIA

5.1.- 2023. urtean zehar hiru aldiz bildu da Akziodunen Batzar Orokorra.

5.2.- Batzar Nagusia eratzeko quorumari dagokionez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateen Legean aurreikusitako erregimenarekin.

5.3.- Hitzarmen sozialei dagokienez, ez dago desberdintasunik Kapital Sozietateen Legean aurreikusitako erregimenarekin.

5.4.- Hiru Batzar Nagusiak izaera unibertsalarekin egin dira.

5.5.- Batzar Nagusiko Presidentea eta Administrazio kontseiluko presidentea pertsona bera dira.

5.6.- Sozietateak ez du egin Batzar Nagusiko araudirik.

5.7.- Txosten honi dagokion epean egindako batzar nagusiko erabakiak aho batez hartu dira. Hain zuzen, erabaki hauek hartu dira:

2023ko martxoak 17an ospatutako Batzarra

1. **Harkaitz Millan Etxezarreta** jauna Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SAko kontseilari kargutik kentzea.
2. **Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SAren administratzaile izendatzea Maria José Telleria Etxeberria**, adinez nagusia, ezkondua, ondorio hauetarako helbidea Donostian duena (Mikeletegi pasealekua 53, NAN zk.: 15.385.102-B), eta kargu hori onartzen duena.
3. **Estíbaliz Hernaez Laviña andreari, Itziar Epalza Urquiaga andreari eta Oscar Alberdi Sola jaunari ahalmena ematea**, horietako edozein edozein notarioaren aurrean agertzeko eta Batzorde honetan hartutako erabakiak eskritura edo eskritura publikoan formalizatzeko, egokitzen jotzen dituzten klausulak kontsignatu ahal izango dituztela, harik eta Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatu arte.

2023ko ekainak 16an ospatutako Batzarra

1. **2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion Sozietatearen urteko kontuak onartzea** (egoera-balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbian izandako aldaketan egoera, eskudiru-fluxuaren egoera eta memoria).
2. **2022ko ekitaldiko emaitza positiboaren aplikazioa onartzea**, 176.264 eurokoa, aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzeko.
3. **Administrazio-organoak 2022ko abenduaren 31n itxiztako ekitaldi sozialean egindako kudeaketa soziala onartzea.**
4. **Sozietatearen kapitala handitzea**, gaur egun 90.732.600 eurokoa dena, 100 euroko balio nominaleko 907.326 akziotan banatuta eta ordezkatuta, 92.932.600 eurora arte, hau da, 2.200.000 eurora arte, gaur egungo akzioen mota eta serie bereko 22.000 akzio berri jaulki eta zirkulazioan jarriz, bakoitza 100 euroko balio nominalekoa, 907.327tik 929.326ra arteko titulu izendunen bidez ordezkatuta, biak barne. Jaulkipen berriko akzioek aurrekoen eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte.
5. **Sozietatearen Administrazio Kontseiluari ahalmena ematea, Administrazio Kontseiluko presidentearen eta idazkariaren ordezen-ahalmen berariazkoekin**, gehienez ere urtebeteko epean Batzar Orokor honek erabaki ez dituen kapital-gehikuntzaren baldintza guztiak zehazteko, eta, bereziki, sozietatearen kapital-gehikuntzaren azken zenbatekoa zehazteko, eta gehikuntza itxiztat deklaratzeko, harpidetza egin eta jaulkitako akzioen balio izendatua ordaindu ondoren, bai eta, hala denean, harpidetza osatugabetzat deklaratzeko, sozietatearen estatutu-tako 2. artikulua aldatzeko, azkenean harpidetu eta ordaindu diren akzioen kopuruaren arabera ateratzen den kapital-zifra berrira egokitzeko, beharrezkoak edo komenigarriak diren agiri publiko edo pribatu guztiak idatzi, izenpetu eta emateko, eta, oro har, erabaki hau osorik betearazteko behar diren egintza guztiak egiteko ere.
6. **Estíbaliz Hernáez Laviña andrea**, adinez nagusia eta ezkondua, **Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkeko administratzailea eta presidentea berriz hautatzea**. Horretarako helbidea Donostiako Mikeletegi pasealekuko 53. zenbakian du eta 30.624.350-B NAN zenbakia du. Batzarrean kargua onartzen du eta legezko bateraezintasunik ez duela deklaritzen du.
7. **Estíbaliz Hernaez Laviña andreari, Itziar Epalza Urquiaga andreari eta Oscar Alberdi Sola jaunari ahalmena ematea**, horietako edozein notarioaren aurrean agertzeko eta Batzorde honetan hartutako erabakiak eskritura publikoan formalizatzeko. Egokitzen jotzen dituzten klausulak jaso ahal izango dituzte, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatu arte.

2023ko urriak 6an ospatutako Batzarra

1. Kargu-uztea:

Javier Larrañaga Garmendia jauna, Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SAko sailburua.

Dña. M^a José Tellería Etxeberria, Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SAko sailburua.

2. Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkea SAren administratzaile izendatzea honako hauek:

Dña. Ane Insausti Altuna andrea, adinez nagusia, ezkondua eta ondorio hauetarako helbidea Donostiako Mikeletegi pasealekuko 53. zenbakian duena (NAN: 72498817-B), unean bertan egonik, kargua onartzen duena eta legezko bateraezintasunik ez duela adierazten duena.

José Ignacio Asensio Bazterra jauna, adinez nagusia, ezkondua, ondorio hauetarako helbidea Donostian duena (Mikeletegi pasealekua 53, NAN zk.: 15987473-N), eta behar bezala onartzen duena.

3. Administrazio Kontseiluari eskuordetzea sozietatearen kapitala behin edo gehiagotan gehitzeko, 2023ko abenduaren 31 baino lehen, eta 452.900 €-ra arte gehienez, Administrazio Kontseiluko presidentea eta idazkaria ordeztzeko berariazko ahalmenarekin, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 297.1.b) artikuluan jasotako modu eta mugen barruan. Baimen honen babesean egiten diren kapital sozialaren gehikuntzak ondoren adierazten diren akziodunek sinatuko dituzte, eta akziodun horiek honela harpidetuko dituzte akzio berri guztiak:

(i) GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAk kapital gehikuntzaren % 80,74 sinatuko du, hau da, 365.700 €, eta

(ii) DONOSTIAKO UDALAK sinatuko du gainerako % 19,26, hau da, 87.200 €.

(iii) Gainerako akziodunek, batzar honetan, uko egin diote kapital-gehikuntzaren gainean izan lezaketen lehentasunezko harpidetza-eskubideari, eta adierazi dute ados daudela gehikuntza aipatutako akziodunek izenpetu eta ordaintzearekin. Hala ere, SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak uko egin ahal izateko, haren zuzendaritza-organoek baimena eman beharko dute alde aurretik. Ondorioz, SPRI – Enpresen Garapenerako Euskal Agentziak uko egingo dio lehentasunezko harpidetza-eskubideari, aipatutako baimena lortu ondoren igorritako idatzizko jakinarazpenaren bidez.

4. Administrazio Kontseiluari eskuordetzea sozietatearen kapitala behin edo gehiagotan gehitzeko, 2024ko abenduaren 31 baino lehen, eta 7.727.400 €-ra arte gehienez, Administrazio Kontseiluko presidentea eta idazkaria ordeztzeko berariazko ahalmenarekin, Kapital Sozietateei buruzko Legearen 297.1.b) artikuluan jasotako modu eta mugen barruan. Baimen honen babesean egiten diren kapital sozialaren gehikuntzak ondoren adierazten diren akziodunek sinatuko dituzte, eta akziodun horiek honela harpidetuko dituzte akzio berri guztiak:

(i) SPRI, Enpresa Garapenerako Euskal Agentziak kapital-gehikuntzaren % 77 sinatuko du, hau da, 5.922.400,00 € eta

(ii) GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAk sinatuko du gainerako % 23a, hau da, 1.805.000,00 €.

(iii) Gainerako akziodunek, egintza honetan, uko egin diote kapital-gehikuntzaren gainean izan lezaketen lehentasunezko harpidetza-eskubideari, eta adierazi dute ados daudela gehikuntza aipatutako akziodunek izenpetu eta ordaintzearekin.

5. Estíbaliz Hernaez Laviña andreari, Itziar Epalza Urquiaga andreari eta Oscar Alberdi Sola jaunari ahalmena ematea, horietako edozein notarioaren aurrean agertzeko eta Batzorde honetan hartutako erabakiak eskritura edo eskritura publikoan formalizatzeko, egokitzen dituzten klausulak kontsignatu ahal izango dituztela, harik eta Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatu arte.

5.8.- Estatutuetan ez dago mugarik Batzar Nagusira joateko beharrezkoa den gutxieneko akzio-kopuruari buruz.

AZKEN OHARRA:

Administrazio Kontseiluaren Estatutua eta Gobernu Korporatiboaren Txostenaren edukia ikusteko, webgune honetara jo daiteke zuzenean: www.parke.eus